

EUSKAL LITERATURAREN
ANTOLOGIA HISTORIKOA



Santi Onaindia





Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak)
diruz lagundutako egitasmoa

EGILEA

Santi Onaindia

ARGITALPENAREN ZUZENDARITZA

Enrique Ayerbe Etxebarria

ARGITALPENA

ETOR-OSTOA, S.L.

Caddie enparantza, 1

20160 Lasarte-Oria

MAKETAZIOA

ETOR- OSTOA, S.L.

20160 Lasarte-Oria.

INPRIMAKETA ETA KOADERNAKETA

GRAFO S.A.

48970 Basauri

ISBN: 978-84-96288-83-6

Lege gordailua: BI-179-2010

EUSKAL LITERATURAREN
ANTOLOGIA HISTORIKOA



Santi Onaindia



AURKEZPENA



Santi Onaindiaren intentzioan antologia-lan honen xedea zen euskal literaturaren historian erreferentzia esanguratsuak izan zitezkeenak antologia xume eta ibilbide labur batean elkartzea.

Antologiak soslaia izan behar zuen, prosalari eta olerkari desberdinena, aro desberdinena, euskalki desberdinena, gai desberdinena eta gizarte-maila desberdinena.

Erakusgai hau ilustrazio literario moduko bat duzu; ez bilatu, ordea, aipatzen diren idazleen lanik adierazgarrienak. Argi-printzak dira, pertsonak, lekuak, gaiak, estetikak eta hizkerak oroitarazteko indarra dutenak.

Aipatu baldintzez gain, ezin dugu zalantzan jarri begikoenek eta balio espiritualtzat errebindikatu nahi liratekeenek hartu digutela aurrea, nahitaezko hautaketa giterakoan.

Dudan jarri ezin den bezala, irakurle bakoitzak bere idazle gustukoenen hutsunea sumatzeaz gain, hautatu ditugun testuen bestelako balioespen bat egingo duela, espazioak mugaturiko hautaketa honetan. Gainera, kontuan hartu behar da lan honek baduela itxiera-data bat, 1978. urte aldera jar daitekeena.

Eranskin batean jarri dugu Onaindiaren aurkezpena, *Oroi-Txinpartak. Egia dana, maita* (Larrea, 1988) lanean berari buruz egiten duena.

Idazleen aurkezpen laburretan eta sarrera batzuetan, euskara eguneratu eta egokitu egin dugu, hau da, egilearen *Euskal Elertia, Milla Euskal Olerki eder* eta *Euskal Literatura* lanetan argitaraturikoak. Eta azken bi lan bikain hauetara jo behariko dute antologia honen irakurleek, dagokien kokamena hartu nahi izanez gero.

EUSKAL LITERATURAREN ANTOLOGIA HISTORIKOA

Santi Onaindia

Aurkibidea

	HERRI-OLERKIAK / KANTA ZAHARRAK	12
	ZUBEROAKO PASTORALAK	18
	BERTSOLARITZA	22
	XVI. MENDEA	27
	BEÑAT ETXEBERRI	28
	JOANES LEIZARRAGA	30
	XVII. MENDEA	33
	JOANES ETXEBERRI	34
	PIARRES AXULAR (1556-1644)	36
	AILLENDE OIHENART (1592-1667)	38
	XVIII. MENDEA	41
	SEBASTIAN MENDIBURU (1708-1782)	42
	AGUSTIN KARDABERAZ (1703-1770)	46
	JUAN ANTONO UBILLOS (1707-1789)	48
	JOANES ETXEBERRI (1668-1749)	50



XIX. MENDEA	53
JUAN ANTONIO MOGEL (1745-1804)	54
BIZENTA ANTONIA MOGEL (1782-1854)	56
PEDRO ANTONIO AÑIBARRO (1748-1830)	58
JUAN ANTONIO ZABALA (1777-1840)	60
JOAKIN LIZARRAGA (1748-1835)	61
JUAN BAUTISTA AGIRRE (1742-1823)	62
AGUSTIN PASKUAL ITURRIAGA (1778-1851)	64
PEDRO J. P. ASTARLOA (1751-1821)	66
BARTOLOME MADARIAGA (1768-1836)	68
FRANTZISKO INAZIO LARDIZABAL (1806-1855)	70
JOSE ANTONIO URIARTE (1812-1869)	72
GREGORIO ARRUE (1811-1890)	74
INDALEZIO BIZKARRONDO, «BILINTX» (1831-1876)	76
PIERRE TOPET, «ETXAHUN» (1786-1862)	78
JOAN BAUTISTA ELIZANBURU (1828-1891)	80
GRAZIAN ADEMA, «ZALDUBI» (1828-1907)	85
CHARLES BEKAS (1847-1911)	86
MANEX ETXAMENDI (1873-1960)	88
PIERRE IBARRART (1838-1919)	90
JUAN ETXAMENDI, «BORDEL» (1792-1897)	92
FELIPE ARRESE BEITIA (1841-1909)	94
JOSE MANUEL ETXEITA (1842-1915)	96



XX. MENDEA	101
TXOMIN AGIRRE (1864-1920)	102
TORIBIO ALTZAGA (1861-1941)	106
MARZELINO SOROA (1848-1902)	108
ANTONIO MARIA LABAIEN (1898-1994)	110
RESURRECCION MARIA AZKUE (1864-1951)	114
EBARISTO BUSTINTZA «KIRIKIÑO» (1866 -1929)	118
KANDIDO BASABE (1867-1928)	120
KARMELO ETXEGARAI (1865-1925)	122
MIGEL ANTONIO IÑARRA (1864-1898)	124
PELLO MARI OTAÑO (1857-1910)	126
KEPA ENBEITA (1878-1942)	128
EMETERIO ARRESE (1869-1954)	130
MARTIN LANDERRETXE (1842-1930)	132
BASILIO JOANNATEGI (1837-1921)	134

JEAN HIRIART-URRUTI (1859-1915)	136
ENRIKE ZUBIRI (1867-1943)	138
PABLO FERMIN IRIGARAI (1869-1949)	142
JON B. EGUZKITZA (1875-1939)	144
JON GURUTZ IBARGUTXI (1883-1969)	146
ERRAMUN OLABIDE (1869-1943)	148
JEAN BARBIER (1875-1931)	150
JULES MOULIER «OXOBI» (1888-1958)	152
NIKOLAS ORMAETXEA, «ORIXE» (1888-1961)	154
BERNARDO MARIA GARRO «OTXOLUA» (1891-1960)	156
JOSE MARIA AGIRRE «LIZARDI» (1896-1933)	158
ESTEBAN URKIAGA, «LAUAXETA» (1905-1937)	160
JUAN ARANA, «LORAMENDI» (1907-1933)	162
SALBATORE MITXELENA (1919-1965)	164
JOAKIN ZAITEGI (1906-1979)	166
SANTI ONAINDIA (1909-1996)	170
LUIS MITXELENA (1915-1987)	174
JOSE LUIS ALVAREZ (1929)	176
NEMESIO ETXANIZ (1899-1982)	178
JOAN INAZIO GOIKOETXEA «GAZTELU» (1908-1983)	182
EUSEBIO ERKIAGA (1912-1993)	184
BALENDIN AURRE-APRAIZ (1912-2007)	186
JEAN MARIE DIHARZE «IRATZEDER» (1920-2008)	188
JUAN SAN MARTIN «OTSALAR» (EIBAR, 1922-2005)	190
BIKTORIANO GANDIAGA (1928-2001)	192
GABRIEL ARESTI (1933-1976)	194
LUIS MARI MUJKA (1939)	196
JOSE AZURMENDI OTAEGI (1941)	198



ERANSKINA	
Santi Onaindiaren aurkezpena	202



EUSKAL LITERATURAREN
ANTOLOGIA HISTORIKOA




Santi Onaindia



HERRI-OLERKIAK / KANTA ZAHARRAK



¿Zer diren eresi zaharrak?
Antzina-antzinako bertso sail
zaharrak. Gehienez ere,
jazoera eta historia
apurren bat dute
kantagai.



Literatura guztietan aurkitzen dira
honakoak. Baita euskaraz ere. Eta ez gutxi: denak batu eta
argitaratzera joz gero, sorta handia osotuko litzateke.

Batez ere, euskal herri osoko Ahaide Nagusienak kantatzen dituzte.

Ahaide Nagusiok?

Euskal Herri osoan, Erdi Aroan ezagunak ziren familia nagusiak eta
elkarren artean sarri elkarren aurka zebiltzanak.

Honelakoxeak dituzu Beotibarko gudu-kanta, Akondiakoa,
Urruxolakoa, Milia Lasturena, Peru Abendañorena, Salinasko
Kondearena, Naparroako Kondestablearena, Alos torrekkoa,
Lelorena eta abar.

Herriak asmatu —nok daki noiz?— eta ahoz aho gaur arte ekarri
dituen poesia zaharrak.

Gure herri-olerkia, guztiz aberatsa da, inguruko edozein literaturetan
bezain eder eta aberatsa. Euskalduna beti izan da abeslaria. Eta kanta
zaharrok, gizaldiz gizaldi, zaharren arnasez heldu dira gure egunetara.
Hauxe dugu herri-olerkia. Gehien bat, musikari esker, guganaino
heldua.

Kanta zaharrok askotarikoak dituzu:

- 1) *gerta-kantak*; 2) *maite-leloak*; 3) *barre- eta negar-kantak*;
- 4) *edan-kantak*; 5) *erlijio-kantak*.

Badira eskale-kantak ere, Gabonetan, Santa Agedaz, Pazkoz, Aratuztez, eta halakoetan kantatzen direnak.

Euskal herriko bazter guztietan ditugu noiz sortuak diren ez dakigun kanta zaharrok. Gaur, zorionez, gehienak legez, herriaren ezpanetatik jaso eta liburuetan ditugu. Lan ederra egin dute horretan Azkuek, Aita Donostik, Joan Karlos Gerrak eta beste batzuk.



G. Hombrados Oñativia.

GERTA OLERKIAK

Alos-Torrea



Alos-torrea bai, Alos torrea;
Alos torreko zurubi luzea!
Alos-torrean nengoanean
goruetan, bela beltzak
Kua! kua! kua! kua! leioetan.

Etxe eder leio bage onetan
enaiz sartu zazpi urte auetan,
eta zortzigarreanean,
neretzat zorigaitzean,
Aita Beltran'en iltzean.
Amandrea nerea nitzaz
bi erdi egin zanean
mila oilo il ziran ezkaratzean,
zazpi zezen korritu ere enparantzean.

... ..

Zeñek loitu zaitu,
Alos- torrea!
Ai, nire Aita maite,
Aita maitea!
Iltzea ondo egin dezu,
Aita Jaun maitea!

MAITE-LELOAK



Xori kantatzaile eijerra



Xori kantatzale eijerra, nun ote hiz kantatzen?
Aspaldian nik eztiat hire botzik entzuten;
ez orenik, ez arterik eztiat eroaiten
mun ehitzaitan oritzen.

Itxasoan umen duzu kantazale eijer bat,
tronpatzen ezpalin-baniz, *zirena* deitzen det bat;
hark inganerazten tizu itxasoan gainti joaliak,
hala nula ni maitenak.



Ignacio Ugarte.

IRRI ETA NEGAR

Etxola



Mendi gainean bi pago!
Zeru polita gorago!
Ene etxola xuri-gorria han ederrik dago!
Zola oro arto-zango,
biper gorriak dilingo!
Herri guzian, mundu guzian, nor da urusago?

Ardiak ditut ehunka,
hamabi ahuntz jauzika,
sei betroin azkar, seiak esnedun, lapinez hameka!
Ogiz betea dut arka,
sotoak arno ba-dauka,
ene biotzak Jainko Jaunari eskerrak diozka!

Karrikan bada gorderik,
Izar urhe bat ederrik:
balio ditu ene gostuko bertze lau segurik:
nahi balu karriketik
hunat bildu ene gatik,
orduan hemen ez lizateke deuseren eskasik!



ARDO KANTAK

Au egunaren andia!



Au egunaren andia!
Au poza ta gogo argia!
txir-txir jartzeko begia
maian naiko edaria:
*glin, glan bonbilletik,
naiz gorri ta naiz txuritik.*

Ago oneko kafea,
au da lenengo aldea,
bigarrena edatea
kattalin gorri maitea:
*glin, glan bonbilletik,
naiz gorri ta naiz txuritik.*

Ondoren dira besteak
edari nai-lakoxeak,
pozik jartzeko tristeak
bustiaz ongi esteak:
*glin, glan bonbilletik,
naiz gorri ta naiz txuritik.*

Gure nagusi jaunari,
ez inortxori besteri,
zor zaio mesede ori
edan zagun bada ongi:
*glin, glan bonbilletik,
naiz gorri ta naiz txuritik.*



ZUBEROAKO PASTORALAK

Euskaldunen lehenengo antzerki saioak edo arnas eman nahiak dituzu pastoralak, Zuberoa aldean oso ezagunak aspalditik.

Europar baziren, Erdi Aroan, hain zuzen ere, elizaren altzotik jaio ziren lehen antzerki eta komediak. Drama liturgikoak ziren lehenengoak; gai biblikoetan eta Santuen bizitzetan oinarritzen ziren gehienak; horietatik hartutako misterio eta mirariak Eguberrietan, Aste Santutan, Pazkotan eta halako garaietan ospatu ohi ziren. XV. gizaldian egiten ziren Espainiako autoak eta Frantziako misterioak, gauza berdin samarrak dituzu.

Guk ere, baditugu halakoak, Zuberoa aldean batik bat.

Eta harrigarria benetan herri-antzerkiok lurralde horretan bakarrik aurkitzea, beste sei probintzietan ezta horrelakoen aztarnarik.

Baliteke, beraz, gurean ere aintzinako ohitura izatea, Frantziako lurralde askotan XI. gizaldian hasita, ohitura zenez.

Zuberoa aldea txit aberatsa da kanta, dantza eta ohitura bitxitan. Nork igarri, bada, hauek noizkoak diren?



Tillac.

Rolan'en trajedi

**Rolan (Karlemain eta Ganelon jokoan)**

... ..

O ezpata baliusa, hire parerik eztuk;
 Hanitz arnes baliusa hik trenkatu duk.
 Infedelen odolak hik iradoki dutuk,
 Etsaiak hanitzetan susprenitu dutuk.
 Hanitz paganuen menbriak hik trenkatu dutuk,
 Hire ahuan sakorik ezin izan ahal duk.
 Eskietarik utzi eta, egiten deriat,
 Kiristiek ediren heien Jinkua otoituren diat.
 Elas! Ene Jinko huna, ederra eta emia,
 Otoi, eman ezadazu egunzure argia.
(Berriz trunpeta eragin)

... ..

Tierri

Elas, Rolan, Rolan! Biotza erdiratzen deritazu.
 O, zeruko Jinko huna, Zuk argi gitzatzu!
 Zu zira oren Aita huna, arima oren bakia,
 Bekatore eta herratien argi eta gidatzalia.
 Rolan, koraje har ezazu, etzitalia lotsa,
 Ez eta munduko egitekuetan zure bihotza okupa.
 Desertuko animalen artian, salhatzen ahal zira;
 Solamente Jinkuareki etxekazu bihotza.

Rolan (Ezpateari pot eginik)

Adio, Durandal! Adio, ene ezpata maitia!
 Jinkuak kontserba dezala hire bertute handia.
 O, ene Jinko maitia! Otoi, entzun nezazu.
 Gaizki mintzatu ba'niz, otoi, parka ezadazu.
 Hel zakitat, otoi, o Birjina Maria!
 Zure gomendatzen derizut ene ezpiritia.
(Hilik eror)

... ..

Moisa'ren pastorala (zatitxoa)



.....

Moisa. O, zelietan zirena,
egidazut miserikordia,
eta nitan etxerka
zure grazia saintia.

.....

Ba-nuazu kantika baten
orai Zuri kantatzera,
Ainguriak, zirausteie,
otoi, ene laguntzera.
(Gab.riel aingerua sartzen da)

.....

Aingerua (kantuz)

Zelutik gu jaitsi gutuzu,
Moisa, zure laguntzera,
zeluko Aitak igorririk
zure faboritzera.

Moisa (kantuz) Emaidazut, arren, grazia
etsaien defendatzeko,
bai eta ere betiere
tentazionen goitzeko.

Aingerua (kantuz) Lauda eta dugun adora
zeluko Jinko handia,
zeren Harek oro bei-zutian
kreiatu mundiala.

Moisa (kantuz) Gure aita Adan lehenak
oro kokatu gutu,
hena Natura dibinoak
oro xahaturen gutu.

Aingerua (kantuz) Hanitz arima tristerik duzu,
Jauna, aillageratzen,
eta Satan'en ponpatik
oro gutuzu libratzen.

Moisa (kantuz) Izpiritu dibinoa,
hehar duzu juan behala
Fine jeneralaren
bere *Tantan* edireitera.

Jainkuaren ordre bat ba-dudala
eta huna jin dadila,
Jaunaren mania fidelki
etxe kutatu behar dugula.

Aingerua. Profeta justua, ba-nuazu
zure ordren etxe kutatzera;
otoi, zuaza zu ere
apur bat repousatzera.
(*Biak doaz*)



Tillac.

BERTSOLARITZA



Ez dakigu noizkoa den gure bertsolaritza.
Antzinakoa, nahitaez, gure herria euskal lur
honetan aspaldikoa baita.

Beinola, orain hamalau-hamasei mila urte,
Santimamiñeko kobazuloetan bizi zirenak,
haitz-hormetan margolan eta pinturak laga zituzten moduan,
gorputz eta arima zirenez gero, hitz ere egingo zuten eta hitz egiteaz
gain, musika eta kantu ere euren izango zuten. Ordukoak edo
lehenagokoak ditugu, bada, gure bertsolariak: koplak eta bertsoak
ondu zituztenak.

Euskal ohitura zaharra omen da bertsolaritza, hau da, bertsoak otu
ahala botatzeko ohitura.

Iturri beteak ura eskaintzen du; gure pagadi eta hariztietako txoriak
kanta-kantari ditugu. Euskalduna ere, gizaldietan zehar,
kantari ibilia da.

Gure arnasa eta bihotz-barnea bertsolariak erakutsi digu ondoen.
Ahoz aho gureganaio heldu diren kantu zaharrak ditugu testigu.





Jacinto Olabe



Neska zar bat tentatzen



Dozena bat bertso nai nituzke jarri,
Jaietan kantzeko entretenigarri;
Nire publikatzia izango da sarri,
Alabantzak emanaz zenbait neska zarri.

Neska zar bat tentatzen asi naiz lenguan;
Izan ere, alako polita zegoan!
Umil eta serio itz egin genduan,
Baño gusto guziak ez dira munduan.

... ..

—«Itz bat esan biar det nere borondatez;
Ez ba'nau iñork lotzen griluz edo kakez,
Ezkontzeko ideak ba-nituen ustez:
Ardua maitatzen det andriaren partez».

—«Mutil matizoso deabruz betia,
Ez dizut zabalduko geiago atia;
Beinere etzaitut izandu biotzez maitia;
Nigandik libre zera, or konpon zaitia».

Orra amabi bertso oraingo berriak
Bere andre-gaiari Txirrita'k jarriak;
Eman dizkit desgusto ikaragarriak:
Negar egin lezake nigatik arriak.

(Joxe Manuel Lujanbio «Txirrita»)



Eguzki-argi laguntzallia



Eguzki-argi gozo biguna,
 ba-zatoz neure leiora,
 nagi bagarik goizian goizik
 egun onak emotera,
 pozez beterik jarten nozula
 zeu ikusiaz batera.
 Eskerrik asko eta egun on,
 etorri zaitetz aurrera!

... ..

Gaurko munduan apaltasuna
 ia dakusgu galdurik,
 elkar- maitasun zoriontsua
 gorroto-soiñez jantzirik.
 Eguzkiaren argia bage
 Ezek ez daun lez bizirik,
 Elkar-maitasun barik be ez dago
 Muanduan iñoiz bakerik.

(Enbeitat'ar Balendin)





XVI. MENDEA

Literatur giroa



Euskal Herria, gizaldiak joan eta gizaldiak etorri, Nafarroa izan ezik, herri baztertua izan da, bere arrantzu, artzaintza eta nekazaritzatik nahiko isilik bizi izan dena.

Berdin bere hizkuntza ere: ez du honek inoiz adierazi ahal izan euskaldunaren bizitza kezkatua. Gure aurrekoek, euskara eta euskalduna goratzeko, erderara jo ohi zuten gehienbat.

XV-XVI. gizaldietan, inguruetako hizkuntzak, frantsesa eta gaztelania batez ere, Pizkunde ederrean loratuz zihoazen.

Eta gure euskara? Esnatu behar zuen honek ere aspaldiko lozorrotik. Eta gizaseme argi eta adoretu bi ditugu euskal literaturari lehenengo oinarri guztiz sendoak ipini zizkietenak: *Etxepare* eta *Leizarraga*. Ez, ez zuen hasiera txarra izan gure literaturak.

BEÑAT ETXEPARE



Gizon bezala ez zaigu oso ezaguna Beñat Etxepare. Berari buruz dakigun apurra ere, poesia liburutik atera dezakeguna da. Bere «Linguae Vasconum primitiae» liburua argitara ekarri zuenean, Eiheralarreko arimazaina zen, dirudienez. Jakin badakigu non edo non espetxeratua egona zela ere.

Zergatik espetxeratu zuten? Ez dakigu. Etxepare gizaseme zintzoa zen, eta, bere olerki lanetatik agertzen zaigunez, benetako arimazaina.

Historiak esaten digunez, urte latzak ikusi zituen Etxeparek. Eta ez da harritzekoa, bere lanetan beti kezkatu agertzea.

LINGVAE VASCONVM PRIMI-
tiz per Dominum Bernardum Dechepare
Rectorem sancti michaelis veteris.





Donibane Garazi

Sautrela



O Heuskara, landa ezak Garazi'ko herria,
Zeren hantik uken baituk behar duian tornuia;
Lehenago hi baitintzan lengoajetan azkena,
Orai aldiz izanen iz orotako lehena.

Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden,
Bana haien lengoajiaz bertze oro burlatzen,
Zeren ezein skripturan erideiten ezpaizen,
Orai dute ikasiren nola gauza hona zen.

Heuskaldun den gizon orok altza beza buruia,
Ezi huien lengoajia izanen da floria,
Printze eta jaun handiek, orok haren galdia,
Skribatuz al balute ikasteko desira.

Desir hura konplitu du Garazi'ko naturak,
Eta haren adiskide orai Bordel'en denak;
Lehen inprimitzalia Heuskararen hura da;
Basko oro obligatu jagoitiko zargana.

Etai, lelori, bai lelo leloa, zarai leloa.
Heuskara da kanpora, eta goazen oro dantzara.

Ezein iaunek eztu nahi mutil gaixtoa eduki,
Ez pagatu soldatarik zerbitzatu gaberik.
Iangoikoa ari duzu hala hala gureki:
gloriarik ez emanen hongu egin gaberik.

JOANES LEIZARRAGA



Gizon nahiz idazle legez, handia izan zen Leizarraga, Nafarroa Behereko Beskoitze herrixkan jaio zena. Oraindik ez dakigu ziur noiz munduratu zen, ezta noiz hil zen ere.

Elizgizona zela, bai, badakigu; lehenengo katolikoa, eta gero protestantea.

Garai haietan Nafarroa Beherean eta Biarnoko erregina zen Joana Albretekoak aginduta hiru liburu euskaratu zituen.

1) *Jesukristo gure Jaunaren Testamentu Berria*; 2) *Abc edo kristinoen Instruktionea*, eta 3) *Kalendrea, edo Egutegia*.

Joana Albretekoak, euskarazko liburuak behar zituen Euskal Herrian bere usteak zabaltzeko. Kristau euskaldunak esku artean behar-beharrezko zituen liburuak euskaraz osotu eta edukitzea nahi zuen.

Beskoiztarra, izan ere, jakintsua izateaz gain, liburuzale amorratua zen, eta euskararen muina sustraietik ezagutzen zuen.



Gomendiozko Karta



Andrea, zeren ni zure ezagun gabea bezala naizelarik, Testamentu berriaren heuskarazko translazione hunen zure Maiestateari dedikatzeraz ausartu naizen, merezi onez arintasunez akusa ahal neinde, baldin neure aursartgoa hunez zerbait exkusa bereren eman ezpaneza.



Joana Albretekoa

Bada, niri haur eragin draudaten anhitz berze razoinen artean izan dirade, zure humanitate handi jende prestu guziez laudatua, eta Iainkozko zure zelo handia.

Zure humanitateaz den bezenbatean, ene manera halako bazen ere, non ezpaitzuen irudirik ere zure humanitatea sekulan enegana hel ahal leitela, guziagatik ere anhitz aldez hura baliatu izan zait, eta printzipalki, zure maiestatearen plazera hala izanik gaje ordena lekidan, zure Bearnoko herrian entretenitu izan naizen bezenbatean: ezen halaz eman izan zait ithoa bezala azpitik nendukaten gogo-arranguretarik, eta orhoitzeak ere buruko biloa latz eraziten drautan kaptivatezko sujek zionetik ilkhiteko okasione eta moien.

Eta zure zelo Iainkozkoaz den bezenbatean, hark du enjendratu zu baithara jende prestuen bihotzean halako reverenzia bat, non are zure ezagutza eztutenek ere ezin asko mirets baitezakete zure berthutea, zuri zuzen onez emaiten zaizkizun laudorioakgatik eren hain afekzionatu erakusten aren Iainkoaren tenpleko gauza gaizkituen drezatzen, eta zeren hark, kuasi desegin eta arrasatu izanik, orain zure moienez reedifikatzen delarik, rekrubatu baitarama bere leheneko edertasun Apostoluen denboran ohi zuena.



XVII. MENDEA

Euskal literatura XVII. mendean



XVI. gizalditik aurrera, politikan eta erlijio-kontuetan, nahikoa nahastuta zebilen Europa osoa. Ipar Euskal Herria ere, latz erabili zuen nahaste horrek.

Euskal literaturari begiratuz gero, mugaz bestaldedik ezialdi hobe eta etorri zen hemendik baino, ekaitz ostean. Lapurdin eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan euskal idazle jatorrak jalgi ziren, Axular eta honen ingurukoak, batez ere.

Elkarren artean lan eginez, giro atsegingarria sortu zuten aldi haietan.

JOANES ETXEBERRI

A Apaiza zen. Donibane Lohitzune ondoko Ziburu herrixkan jaioa; ez dakigu noiz. 1637.era arte edo, sorterrian egon zen arimazaintzan.

Gizon jakintsua zen. Bere liburuetan ere beti ageri da *Doktore* (Maisu) edo teologo gisa.

Donibane Lohitzune. Ziburu.



Balea zaleen otoitzak

🌀 O Jaun, Tobias gaztea ungi begiratu,
Guardaritzat bidaldurik Arkanjelu Saindua,
Eta kostara arraña erakar- arazia,
Aren hiltzeko egiten ziñoela grazia;
Guri ere ekarguzu hurbilera balea,
Segurkiago armaren landatzeko kolpea.
Biziaren gatik dugu hurriskatzen bizia:
Arren egiguzu haren gelditzeko grazia.



Hombrados Oñativia

Tillac



Artzainak Belenen



Aingeruek zutenean
eresia kantatu
hedoetarik zitzaizten
artzain onei mintzatu:

«Artzainak, utz itzatzute
nеспilletan ardiak,
eta Betleena laster
iauts zaitezte gaztiak».

Hitz hauk gauaz entzuteaz
hagitz ziran iztu,
boz hura nondik heldu zen
gora zuten behatu.

Guztiak partidu ziran,
aitziñean zuzia,
sortu den Haurraz zutela
bere solas guztia.

Sortu zen heia xarrera
ziranean hurdilbu,
errespetu handiz ziren
berehala ixildu.

Oiñetakoak zituzten
utzi ate sartzean,
eta berak sartu ziren
humilki barrenean.



PIARRES AXULAR (1556-1644)



Idazle eta hizlari ospetsua zen Axular, bai lehengoentzat bai oraingoentzat. Toki bakana du euskal literaturan.





Urdazubi

Axular ez da idazle handi honen abizena, bere jaiotetxearena baizik. Zutik dugu oraindino haren basetxea; Piarres Agerre eta Azpilkueta dira haren egiazko abizenak. Urdazubini jaioa zen, Nafarroako mendi-zoko gorde batean, Lapurdi eta Nafarroa arteko muga-mugan.

Han-hemengo ikastetxeetan egin zituen apaiz-ikasketak. Tardetsen eman zuen lehen meza 1596an. Jakituria galanta erdietsi zuen, batxiller izena lortzerainokoa; «Gero» izeneko bere liburuan erakusten digun argitasuna, izan ere, ez da Urdazubini bakarrik hartutakoa.

Saran bizi izan zen luzaro, arimazaintzan, 1600. urtetik aurrera. Saran, garai hartan, 298 familia bizi ziren. 1644an hil zen.




Gerotik gerora



«Nola gerotik gerora ibiltzeaz galtzen dugun denbora» deritzon kapituluan (XII) hau dio:

«Gerotik gerora zabilta; urte hunetan gaixo izanik, datorkeienean onduko, eta prestutuko zarela diozu.

Bada biz hala, zuk diozun bezala, eta gogoan darabillazun bezala, gerta dakizun, eta urte hunetan gaixo izanik, zure gero horretan, etorkizunean prestu zaitezin.



Hori horrela baliz ere, non da batatz, urte hunetan egin ahal zendukeyen irabazia eta aitzinamendua? Zeren giristino onek, urte batez anhitz obra on egiten dute, eta bai meritu ere erdiesten: giristino onak urte batez, aitzinatzen dira, baiña zu nola aitzinatuko zaren ezen gibelatzen zara, anhitz bekatu eta gaiztakeria egiten duzula.

Eta berriz bertzea, non da halaber bitartean, urte hunetan zure Gero horretara hel arterainokoa galtzen duzun denbora? *Fili, conserva tempus* (Eccli. 4). Ene seme, begira ezazu denbora, dio Espiritu Sainduak. Aitzinean duzuiño, zakitza. Zeren behin ioanez gero, ezta bihurtzerik, eta ez erdiesterik.

Orai, denbora aitzinean duzuiño, egizu ahal dagizuna: eta orai ere, *Instante*, fite, presenteon. Zeren iakin behar duzu ezen eztela gero, zuk ioan behar duzun leku artan, arrazoin alegatzerik, eta ez iakintasunaz probetxatzerik izanen.

Uzten baduzu, nola eztakizula, orai eskuen artean duzun denbora iragaitera, egin da, galdu da, ezta gehiago bihurtzerik. Hargatik erraiten du Iondone Paulok: *Dum tempus habemus operemur bonum* (Gal. 6). Denbora duguño dagigun ongi».

AILLENDE OIHENART (1592-1667)



Zuberoako hiriburua da Maule,
Oihenarten jaioterrria.

Senideetan bigarrena zen honek heziketa ezin
hobea hartu zuen gurasoen etxean.

Aitaren ogibideari jarraituz, Bordelen ikasi zituen
legeak, horretan lizentziatu eta 1616an
lortu zuen Legegizon titulua.

1627an Joana Erdoi emakume aberatsarekin ezkondu zen.
Honi zuzendutariakoak dira bere poemarik gehienak.

Donapaleun bizi izan zenez, han izan zituen kargu batzuk:
Nafarroako Parlamentuko eta hiriburuko zinegotzia izan zen.
Herritarren alde jokatu zuen beti.



Maule.

Gauik, egunik



Gauik, egunik,
eztinat hunik,
hireki ezpaniz, Argia:
hireki ezpaniz,
itsu hutsa niz,
zeren baithiz en'argia.

Hirekil'aldiz,
bederak'aldiz
bazter lekutan baturik
nonbait banago,
nun botzenago,
ezi Errege gertaturik.

Lagun artean
hel nadinean,
elhaketan, erhogoan,
ez nun dostatzen,
ez nun mintzatzen,
hi beti, beti, aut gogoan.

Nik dudan lana,
ezin errana,
zer koeinta dudan higati;
en'ixil eta
maiz pensaketa
egonak, ziotsan nigati.

Kadran-orratzak
burdin-aitz latzak
hunki-eta buztan mehea,
xuxen, han hara,
eguerditara
diadukan punta xehea;



ni hala hala,
tiraz bezela,
hik joz geroz
bihotzean,
hiri gorpitzez,
beti, ed'orhitzez
narrain, bait'are
lotzean.

Bana herabe,
stakuru gabe,
dinat, Argia, jitera
hir'etx'irira
leku agerira,
jenten minz'erazitera.

Beraz higanik
egin, jadanik,
noiz nakidina
dakidan
jin, eta nura,
gorde-lekura,
eta hi han bat akidan.